

3. KANALAK

Ibiltzen enpresak beharrezkoa izango du bezeroak lortu, mantendu eta guregana iritsi ahal izateko kanalak edukitzea. Kanalen bitartez lortuko dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea. Hiru kanal hauek bereizten dira. Komunikazio kanala, banaketa kanala eta salmenta kanala.

Salmenta kanalarik dagokionez, emaila, telefonoa eta denda fisikoa alokatu dugu Azkoitian. Honez gain ditugun produktu eta hitzaldien berri gure web orrian itsatsiko ditugu, gure bezeroak jakinaren gainean egon ahal izateko.

Denda fisikoaren garrantzia azpimarratzekoa da guregana iritsi ahal izateko kanal garrantzitsuena baita. Bertan egongo baita gure lan esparrua.

Bestalde komunikazio kanalarik dagokionez, hire metodo erabiliko ditugu. Alde batetik lehen aipatu dugun web orria. Beste alde batetik, flyers, hau da, gure informazioa etxeetara bidaltzean oinarritzen da. Eta azkenik gure katalogoa gauzatu dugu, dauzkagun produktuak hobeto ezagutu edota ezagutzera emateko.